



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN OSOKOAK ATZERA BOTA DITU EH BILDU ETA ELKARREKIN TALDEEK 2021EKO AURREKONTUEI EGINDAKO OSOKO ZUZENKETA-ESKEAK

- **Bizkaiko Kontuen ganeko Batzarretako izapideak datorren astean jarraituko dau Ogasun eta Finantzetako Batzordean, zezeilaren 8tik, astelehenetik, 15era, hurrengo astelehenera, 600 zuzenketa-eske parzial baino gehiago eztabaidatuta.**

(Gernikan, 2021eko zezeilaren 3an). 2021eko Bizkaiko Aurrekontuen Foru Arauaren proiektua datorren astean jarraituko da izapidetzen batzordean, gaur, Gernikan egindako Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkurak batzarretako EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeen eskaera bikotxa atzera bota ostean. Foru Gobernua eusten daben indar politikoen –Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak– batura nahikoa izan da aurrekontuak itzultzeko ekimen biak baztertzeko. Kontrako botoak 35 izan dira, eta Talde Berezia-PPBko ordezkari biek bat egin dabe jarrera horregaz. Horreen aurrean, koalizino abertzalearen baieztoko 14 botoak eta Elkarrekin Bizkaia taldearen aldeko 6 botoak egon dira.

Holan, datorren astelehenetik aurrera, lurraldeko Kontuek batzordean jarraituko dabe Batzarretako ibilbidea, eta taldeek aurkeztutako 600 zuzenketa-eske parzial baino gehiagoren eztabaidea hasiko da, Mahaiak zuzenketa-eske horreen eukia onartu ostean. Aldundia babesten daben alderdi biek zuzenketa-eske bakarria defendiduko dabe. EH Bilduk, barriz, 160 zuzenketa-eske defendiduko ditu; Elkarrekin Bizkaiak, 325; eta PPk, 135. Zuzenketa horreek zezeilaren 8tik, astelehenetik, 15era, hurrengo astelehenera, bitartean eztabaidatu ostean, Batzarretako taldeek erreserbautako zuzenketa-eske parzialak onartzeko edo atzera botateko Ogasun eta Finantza Batzordean zezeilaren 24an egingo dan azkenengo osoko bilkura bategaz amaituko da aurrekontuen izapidea.

2021eko Aurrekontuen proiektuak “7.970,8 milioi euro” jasoten ditu guztira, eta horreetatik “1.595,5 milioi” Bizkaiko Foru Aldundirako dira, Elena Unzueta bozeroale eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko diputatuak azaldu dauenez. Kontu horreek “ezin dira igazkoakaz alderatu” covid-19aren inpaktuagaitik. Aurkeztutako kontuak igazkoak baino “% 6” txikiagoak dira, neurri handi batean, itundutako diru-sarrerak “% 9,8” jeitsi diralako. Zorra “294,3 milioi” igon da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Arauzko testuari jagokonez, Batzarretako taldeek zuzenketa-eske sorta bat prestau dabe, gobernuaren ekintzaren oinarri dan zenbateko horren norakoa aldatzeko. Zuzenketa-erako eskari gehien jasoten dituen sailak honeek dira: Ekonomia Sustapena (110 zuzenketa-eske), Gizarte Ekintza eta Administrazio Publikoa eta Erakunde Harremanak (78 zuzenketa-eske), eta Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna (77 zuzenketa-eske). Ganera, Euskara eta Kultura foru arloak 66 zuzenketa-eske jaso ditu; Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeak, 62; Azpiegiturak eta Lurralde Garapenak, 43; Ogasuna eta Finantzak, 27; eta Garraioak eta Mugikortasun Jasangarriak, 28. Beste alde batetik, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUF) 14 zuzenketa-eske jaso ditu, eta 36 proposamenek Foru Arauaren Proiektuaren alderdi artikulaturen bat aldatzea bilatzen dabe. Sei zuzenketa-eskek aldaketak eskatzen ditue Udal Finantzaketan eta batek Zor Publikoaren ganeko testuan.

ZUZENKETA-ESKEEN EZTABAIDEA

Foru Gobernua babesten daben taldeek etorkizuneko diru-sarreraren norakoa defendidu dabe. Jesus Lekerikabeaskoa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak esan dauenez, aurrekontuak “oinarri sendoetan” oinarritzen dira, pandemiaren ondoriozko egoera “larriari” erantzuna emoteko. Aurreikuspenek erakusten dabenez, Bizkaiak “urte bitan” berreskuratuko dau bere ekonomia; izan be, orain “7.600 lanbako gehiago daukaguz, eta 16.900 persona dagoz ERTEan. Bozeroale jeltzaleak azpimarratu dauenez, “873 milioi” gitxiago jaso diran arren, sailek erabili daikien zenbatekoak “% 5,9” egingo dau gora. Egoera horretan, gizarte zerbitzuek “lehentasuna izaten jarraituko dabe” Aldundiarentzat. “Hobetu” daitezke, baina 2021. urteak, Etxetic eredu ezarten hasteagaz batera, “maila bat igoteko” balioko dau. Lekerikabeaskoak Osoko zuzenketa-eskeak aurkeztu dituen talde bien estrategia politikoa kritikau dau. Zuzenketa-eske parzialak be aurkeztea “kontraesana” da.

Ildo horretan, Juan Otermin bozeroale sozialistak esan dau “etsigarria” dala EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak Bizkaian babesten ez dabena Madrilen zelan babesten daben ikustea. “Aldundiaren plan eta ardatz estrategikoagaz bat datoz”, eta, halanda be, bere eretxiz, “preminazko egoerari eta foru egitura indartu beharrari” erantzuteko “errealistak diran eta egiaztatu dagozan” aurrekontuak osorik zuzentzea erabagi dabe. Unzuetak nabarmendu dauenez, aurrekontu horreek trantsizino lau ardatzetan dagoz zentratuta: gizarte eta osasun arloko trantsizinoa, mobikortasun iraunkorragora doan trantsizinoa, eta trantsizino digitala eta energetikoa. Oterminen berbetan, zuzenketa-eskeak aurkeztu dituen talde biek Europar Batasunaren gobernu-ekintzagaz bat datozen aurrekontuen “izaera soziala eta hedakorra ukatzen dabe”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Halanda be, EH Bildu “akordio zabala” eregiten saiatu da, pandemiak lurraldean daukan eraginak halan eskatzen dauelako, eta hori “ez da posible izan”, esan dau Arantza Urkaregi ahaldunak. Une “berezi” honek “politika publikoak barriro pentsetara eta lehentasunak aldatzera” behartzen gaituela azaldu dau. Koalizio abertzaleak aurtengo aurrekontuak “zerbitzu sozial publikoak indartzera, trantsizino ekologikoa eta enpleoa bultzatzera eta lurraldeen arteko oreka lortzera” bideratzea gura dau. Hain zuzen be, GUFEn lanpostu publiko gehiago eskatu ditu; izan be, “64” lanpostu publiko kendu gura ditue. Egoitzetako ikuskaritzea indartzea be eskatu dau. Horrez gain, ingurumen politiketarako eta bardintasunerako partida gehiago eskatu ditu, eta azpiegitura handietarako gastuak murriztearen alde agertu da.

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaia taldea Foru Gobernuak aurkeztutako kontuen kontra agertu da, “ez datozalako bat pandemiaren zergaitiakaz eta ondorio ekonomikoakaz”, azaldu dau Eneritz de Madariaga bozeroaleak, covid-aren aurreko “bide eta egitura bera” jarraitzen dabelako. Diru partida gehiago eskatu ditu udalentsat, zaintza eredia eraldatzeko eta klimaren krisiari aurre egiteko, ekoizpen, energia eta mobikortasun sistema barriro planteauz. Eta Foru Aldundiari zerga erreforma bat egiteko eskatu deutso, zorraren igoerak etorkizuna hipotekau ez daian. Hasteko, BGAEetan kenkari fiskalak ezabatu beharko litzatekezala esan dau.

Bukatzeko, Talde Berezia-PPBk ez dau osoko zuzenketa-eskerik aurkeztu, politika “errealistea, erabilgarria, neurrikoa”, eta “ulermenaren eta Bizkaiaz dogun konpromisoaren aldeko esfortzua” daukielako, Amaya Fernandezek azaldu dauenez. “Joko-zelaia zabaltzeko eta lankidetzarako denporea” dagola esan ostean, susperraldirako “baliabideak barriro esleitzeko” eskatu dau, urte honetarako fase bitan bideratuta: bata “eustekoa”, “lan-merkadua eta enpresak babesteko” neurriakaz; eta bestea “susperraldikoa”, “hazkundean eragin handiagoa” izango daben aurrekontu eta zerga arloetako neurriak sartzea beharrezkoa dalako. “Neurri ausartak preminazkoak dira”, esan dau, “lehiakortasuna irabazteko politika fiskala”, besteak beste.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA RECHAZA LAS ENMIENDAS A LA TOTALIDAD DE EH BILDU Y ELKARREKIN PARA LOS PRESUPUESTOS DE 2021

- **El trámite parlamentario de las Cuentas de Bizkaia continuará la próxima semana en la Comisión de Hacienda y Finanzas, entre los lunes 8 y 15 de febrero, con el debate de más 600 enmiendas parciales.**

(Gernika, a 3 de febrero de 2021). El proyecto de Norma Foral de los Presupuestos de Bizkaia de 2021 continuará con su tramitación la semana próxima en comisión después de que, hoy, el pleno de las Juntas Generales de Bizkaia celebrado en Gernika, haya desestimado una doble petición de devolución de los grupos junteros de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia. La suma de las fuerzas políticas que sustentan al Gobierno foral –Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos-, ha sido suficiente para rechazar las dos iniciativas de devolución. Los noes han sumado 35 votos en contra, sumándose a estos los dos representantes del grupo Mixto PPB, frente a los 14 síes de la enmienda de la coalición abertzale y 6 votos favorables de la de Elkarrekin Bizkaia.

De esta forma, las Cuentas del territorio proseguirán a partir del próximo lunes en comisión su recorrido parlamentario con el inicio del debate de más de 600 enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros después de que la Mesa haya aceptado su contenido. Las dos formaciones que apoyan a la Diputación defenderán una única enmienda. EH Bildu, por su parte, hará lo propio con 160 enmiendas; Elkarrekin Bizkaia, con 325; y el grupo Mixto-PPB, con 135. Tras el debate de estas enmiendas entre los lunes 8 y 15 de febrero, el trámite presupuestario finalizará con un último pleno a celebrar previsiblemente el 24 de febrero, para aprobar o rechazar las enmiendas parciales que sean reservadas por los grupos junteros en el seno de la Comisión de Hacienda y Finanzas.

El proyecto de Presupuestos de 2021 incluye un montante total de “7.970,8 millones de euros”, de los que “1.595,5 millones” son para la Diputación foral de Bizkaia, según ha resumido la portavoz y diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta. Tras advertir que estas cuentas “no son comparables” con las del año pasado por el impacto del covid-19, las cuentas presentadas son inferiores en un “6%” a las del año pasado, en buena medida por la reducción de los ingresos concertados que caen “un 9,8%”. La deuda se incrementa en “294,3 millones”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Al texto normativo, los grupos junteros han preparado una batería de enmiendas para cambiar el destino de este montante sobre el que se apoya la acción de gobierno. Los departamentos que más retoques recogen son Promoción Económica con sus 110 enmiendas; Acción Social, y Administración Pública y Relaciones Institucionales, se quedan con 78 cada una; seguida muy de cerca por Empleo, Inclusión Social e Igualdad, 77. Además, el área foral de Euskera y Cultura acumula 66 correcciones; Sostenibilidad y Medio Natural, 62; Infraestructuras y Desarrollo Territorial, 43; Hacienda y Finanzas, 27; y Transportes y Movilidad Sostenible, 28. Por otro lado, el Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS), cuenta con 14 correcciones y 36 propuestas pretenden modificar algún aspecto del Articulado del Proyecto de Norma Foral. Seis enmiendas piden cambios en la Financiación Municipal y una en el texto dedicado a la Deuda Pública.

DEBATE DE LAS ENMIENDAS

Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral han defendido el destino de los futuros ingresos. El portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, Jesús Lekerikabeaskoa ha dicho que estos presupuestos descansan en unos “cimientos firmes” que darán respuesta a una situación “grave” debido a la pandemia. La previsión es que Bizkaia recupere su economía “en 2 años”, ya que ahora “tenemos 7.600 parados más, con 16.900 personas en ERTE. El portavoz jeltzale ha destacado que, pese a que la recaudación ha caído en “873 millones”, el disponible departamental crecerá “un 5,9%”. En este panorama, los servicios sociales” seguirán siendo una prioridad” para la Diputación. Son “mejorables” pero 2021 servirá para “subir un peldaño” con el comienzo de la implantación del modelo Etxetic. Lekerikabeaskoa ha criticado la estrategia política seguida por los dos grupos que han presentado enmiendas a la totalidad. Es una “contrariedad” que presenten también enmiendas parciales.

En esta línea, el portavoz socialista Juan Otermin ha dicho que es “desalentador” que EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia apoyen en Madrid lo que no hacen en Bizkaia. “Comparten los planes y los ejes estratégicos de la Diputación” y, sin embargo, han decidido enmendar a la totalidad unos presupuestos que a su juicio son “realistas y contrastados” para atender “la urgencia y el reforzamiento de la estructura foral” con el foco puesto en cuatro ejes de transición, tal y como ha destacado también Unzueta: la transición sociosanitaria, la que camina hacia una movilidad más sostenible, la digital, y la energética. Para Otermin, los dos grupos enmendantes “reniegan del carácter social y expansivo” de unos presupuestos que están alineados con la acción de gobierno de la Unión Europea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Sin embargo, EH Bildu ha intentado construir un “acuerdo amplio” porque lo requiere el impacto en el territorio de la pandemia, “algo que no ha sido posible”, ha lamentado su apoderada Arantza Urkaregi, quien ha explicado que este momento “especial” obliga a “repensar las políticas públicas y cambiar las prioridades”. La coalición abertzale quiere que los presupuestos de este año caminen hacia “el fortalecimiento de los servicios sociales públicos, el impulso a la transición ecológica y al empleo, y hacia el equilibrio territorial.” En concreto, ha pedido más plazas públicas en el IFAS, ya que la intención del Gobierno foral es eliminar “64” empleos públicos, así como un refuerzo de la inspección en las residencias. Asimismo, ha pedido más partidas para políticas medioambientales e igualdad, mientras abogan por reducir los gastos para grandes infraestructuras.

Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha mostrado el rechazo a las cuentas presentadas por el Gobierno foral porque “no son consecuentes con las causas ni con los efectos económicos de la pandemia”, ha expuesto su portavoz Eneritz de Madariaga, ya que continúan “en la misma vía y en la misma estructura” precovid. Ha pedido más partidas económicas para los ayuntamientos, para transformar el modelo de cuidados y afrontar la crisis climática mediante un replanteamiento del sistema productivo, energético y de movilidad. Y ha instado a la Diputación a realizar una reforma fiscal para que el incremento de la deuda no hipoteque el futuro, empezando por la eliminación de las deducciones fiscales en las EPSV.

Por último, el grupo Mixto PPB no ha presentado enmienda a la totalidad, fruto de una política “realista, de utilidad, moderación y esfuerzo por el entendimiento y por nuestro compromiso con Bizkaia”, ha dicho Amaya Fernández. Tras decir que “hay tiempo para ensanchar el campo de juego y la colaboración”, ha abogado por una “reasignación de recursos” para la recuperación, enfocada en dos fases para este año, una “de contención” con medidas “para proteger el mercado laboral y las empresas”, y otra “de recuperación”, en donde es necesario incluir medidas presupuestarias y fiscales que tengan “mayor impacto en el crecimiento”. “Urgen medidas audaces”, ha dicho, entre ellas, “una política fiscal para ganar competitividad.”